



INTERINOEN EGONKORTASUNAREN ALDE, LEHENTASUNEZKO ZERRENDARIK EZ!

Zerrendak kudeatzeko egungo araudiak (55/2016 Foru Agindua) hasieratik ekarri ditu arazo ugari ezartzeko garaian (larriena zerrendetatik 2.500 irakasle baino gehiago kanporatzea pedagogia tituludunak ez izateagatik; gainera, agindu hori zuzendu egingen da) eta sindikatuen iritzien aurka onetsi zen. Horregatik, zenbait sindikatuk behin eta berriz eskatu dugu aipatu foru agindua aldatzea.

Uztailaren 5eko 337/2017 Epaiak foru aginduaren 3. eta 4. artikulua baliogabetu zituen, araudia behar bezala ez justifikatzeagatik, eta eraginik gabe utzi egungo kontratazio zerrendak. Nafarroako Gobernuak errekurritu zuen epaia Kasazio Auzitegiaren aurrean. Departamentuak asmoa zuen errekurtsoren ebazpenaren zain egoteko; STEILASEk eta beste sindikatu batzuek, ordea, eskatu zioten auzitegiaren erabakiaren zain ez egoteko eta, 2018ko oposizioak baino lehen, araudia aldatzeko. Departamentuak iradokizuna onartu eta itxurazko negoziazio bati ekin zion: proposamenak eskatzea sindikatuei eta gero zirriborro bat prestatzea proposamen haietako bakarrik ere jaso gabe.

STEILASEk bidali zuen proposamen bat zerrendak kudeatzeko, “zerrenda integratua” izeneko, oso ezaguna, Parlamentuan, ikastetxeetan eta hedabideetan aurkeztu baitugu eta kontseilariak berak aipatu baitu maiz irteera egokia bezala. Bertan proposatzen dugu hautaprobak eta zerrenden kudeaketa bereiztea (nahiz eta baremoan puntuak eman oposizioko azterketak gainditzeari, merezimendu gisa) eta zerrenda fosilak ezabatzea. Horrela, denek parte hartuko lukete dituzten gaikuntza/espezialitateekin, hizkuntzako edo beste modu bateko profilekin.

Ezusteko handia hartu genuen Departamentuak aldaketaren zirriborroa bidali zigunean. Izan ere, sarreran justifikatzen da lehentasunezko zerrendetara itzultzea. Zerrenda horiek UPN/CDNren gobernuak inposatu zituen sindikatuen nahiaren aurka, 60/2009 Foru Aginduaren bidez. Bidegabekeriak oinarri du epaia (Gobernuak berak errekurritu duenan), non esaten den Hezkuntza Departamentuak badituela eskumenak kontratazio zerrenden kudeaketarako araudia osatzeko baina, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren beste sektore batzuetan, ezarri eta mantendu dutela lehentasunezko zerrenden sistema eta, kasu honetan, aldaketa ez dela behar hainbat justifikatu. Oroitarazi behar dugu sistema hau Hezkuntzan soilik egon zela indarrean 2009tik 2016ra.

Ez dakigu administrazioak zer argudio erabili duen kasazio errekurtsuan, baina begi bistakoa da hezkuntzako zerrenden kudeaketarako eredu bila bagabiltza, beste hezkuntza sistema batzuk aztertu beharko direla (bakarrik egon baitziren indarrean aldi baterako, Nafarroan bezala), ez Osasunbidearen edo Foruzaingoaren ereduak, alegia. PPren gobernuen agintaldian, zenbait lurraldetan, indarrean egon ziren lehentasuneko zerrendak, baina aldaketaren gobernuak

laster hitzartu zuten sindikatuekin araudiaren aldaketa. Beraz, interinoei egonkortasun handiagoa eman zitzaien eta, ondorioz, baita ikastetxeetako plantillei ere.

Larria da interinoen egoera Nafarroan. Interinitate tasa %30 baino askozaz handiagoa da, eta hurrengo urteetako LPE berezietan eskaintzen diren lanpostuekin, xede gisa ezarria dagoen %8tik hagitz urrun geldituko dira. Milaka irakasle kontratatzen dituzte urtero lanpostu huts iraunkorrak betetzeko: legezko iruzurra, Europako erakundeek diotenez. Oraingo oposizio sistemak ariketa baztertzailerak ditu eta bertara aurkezten dira lanean dihardutenak eta lehen lanpostua erdietsi nahi dutenak. Bada, interinoek desabantaila nabarmenak dituzte sistema horretan, bateratu egin behar baitute lana eta azterketen prestaketa, eta azterketak gainditzen badituzte bakarrik hartzen baita kontuan haien irakasle esperientzia. Lehentasunezko zerrenden sistemak ez du aintzat hartzen esperientzia, baztertzen ditu ariketak gainditzen ez dituztenak edo haietara aurkezterik izan ez dutenak. Finean, urte askoan jardun ondoren, lana gal dezakete interinoek, baldin halabeharrek edo inguruabarrek galarazten badiete azterketak gainditzea.

17/2017 Foru Legea betetzea da prozeduren eta zerrenden lotura mantetzeko beste argudio bat, Hezkuntza Departamentuaren ustez. Ordea, lege hori berariaz egin zen galarazteko espezialitatearen arabera soilik sartzea funtzio publikoan; aitzitik, espezialitateari eta hizkuntzari jarraikiz egin behar da sarrera. Baina legeak ez du ezartzen LPEa eta zerrenden kudeaketarako araudia lotuak egon behar direnik, nahitaez.

Ohartzen gara bi prozeduren bereizketa defendatzeak gorabehera politikoak sor ditzakeela berriz ere eta, halaber, sindikatu batzuek nahiago dutela araudi eskas bat, guztiz kaltegarria interinoentzat, uko egitea baino euskara-gaztelania sistemaren arabera irakasleen bazterketari. Baina, arduraz joka dezagun, horixe eskatzen dugu, irakasle guztien mesedetan eta hezkuntza sistemaren kalitatearen mesedetan. Gure proposamena ez da Departamentuak ezar lezakeen bakarra; beste aukera batzuk badira, interinoentzat hain kaltegarriak ez direnak.

Gobernuak norabidea aldatu du azken asteetan: itunari buruzko negoziazioak hautsi eta proposamen atzerakoi hau aurkeztu du. Horrekin Hezkuntza Publikoarekiko eta irakasleenganako erabateko arbuioa besterik ez du erakutsi.

STEILASek ez du parte hartuko interinoen lan baldintzak (jada negargarriak) okerragotuko dituen inongo negoziatuetan, baina hobetzeko planteamentuetan lagunduko dugu. Hala ere, lehentasunezko zerrendekin aurrera egiteko asmoa badago, ez gara joanen gai hau jorratuko duten Mahai Sektorialek.